

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

**2012ko uda: "Sagardoa eta itsasoa"
esperientzia turistikoa**

**"Sagardoaren Lurraldea"
marka berriaren aurkezpena**

**Donostia Turismoa-rentzako
Prensa dossierra.**

Kontaktua:

943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com

www.sagardoarenlurraldea.com

“Sagardoaren Lurraldea”

“Sagardoaren Lurraldea” aurrerantzean euskal sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko eskaintza turistikoa bildu eta indartuko duen marka berria da.



“Sagardoaren Lurraldea” sagardoaren kulturarekin loturiko turismo jarduera egituratzen eta indartzen duen marka berria da. Bederatzi urtetako ibilbidearen ostean, Sagardunek eskura dagoen turismo eskaintza guztia marka batean bildu du mundu osoko bisitariak erakarri eta gainerako eskaintzekin lehiatzeko helburuz.

Sagardoaren Lurraldeak, orohar Euskal Herriko eskaintza turistikoa eta bereziki Gipuzkoakoa **osatu eta indartu** nahi ditu, honek **eskualdeko garapen ekonomikoan, sagardoaren sektorearen garapenean eta lanpostuen sorreran eragiten** duelarik.

Sagardoaren Lurraldeak sagardoaren kultura, sagardotegi, sagarra, etab...etatik abiatuta bere eskaintza egituratzen du. Eraberean, berezko bizimodu, sinesmenak, historia, errituak, festak, herrialdeak, mendiak, hondartzak, museoak, etab... dituen eskualde jakin bati **berezko esanahiak ezartzen** dizkio. Beraz, esperientzia paregabea eta gogoangarria eskaintzen duen eta munduan bakarra den kultur eskualdea da “Sagardoaren Lurraldea”.

Gaur egun turismoaren alorrean Internet-ak duen garrantzia ikusita, Sagardun-ek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak "aterki" berean biltzen dituen web estrategia berria ezarri du. Lan honek, zerbitzu hauek erabiltzearentzako eskuragarriago bilakatzen ditu eta marka indartzen laguntzen du. Web gune berria www.sagardoarenlurraldea.com da eta bertan, Sagardoaren Lurraldeak eskaintzen dituen proposamen ezberdinak kontsulta daitezke:

Zer egin: esperientzia turistikoak eta sagarra eta sagardoarekin erlazionaturiko ekitaldiak.

Sagardotegian jan: Euskal Herriko sagardotegien bilatzailea.

Zer ikusi: museoak, herriak, paisaiak, leku interesgarriak, etab...

Albisteak: sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko albiste guztiak.

Zure bisita antolatu: Sagardoaren Lurraldeko egonaldia antolatzeko eta erabiltzaile bakoitzaren interesen arabera ibilbidea sortzeko aukera ematen duen erreminta.

Sagardoetxea: euskal sagardoaren museoa.

Sagardodenda: sagardoaren on-line denda.

Sagardopedia: sagardoaren entziklopedia.

“Sagardoa eta itsasoa” esperientzia turistikoa

Museoetara bisita, sagardotegian bazkaria eta itsasontzian ibilaldia. “Sagardoa eta itsasoa” esperientzia turistikoa berri honek, sagardoak antzinako itsas bidaia luzeetan eskorbutoa gaitzari aurre egiteko izan zuten garrantzia ezagutara ematen dio bisitariari modu dinamikoa eta parte-hartzailean.



Erdi Aroko populatze prozesua amaitu ostean, gure eskualdeak bertako biztanleak elikatu ahal izateko zailtasunak izan zituen eta egoera honek, elikagaiak beste bide batzuetatik eskuratzeko beharra ekarri zuen. Halaber, bide horiek itsasoarekin erlazionatuak egon ziren eta hortik dator, beste arrazoi batzuen artean, euskaldunok antzinatean itsasoarekin izan dugun lotura estua, sagardoa izan baitzen, hain zuzen, marinelen edari nagusia.

Esperientzia berri honekin bisitariak Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa (Astigarraga), Aquarium-a (Donostia) edo Ondartxo (Pasaia) bezalako museoak bisitatzeko, itsasontzian ibilaldi gidatua egiteko eta sagardotegiko bazkari batean gaiarekin lotutako gastronomiaz gozatzeko aukera izango du. Guzti honek sagardoa eta itsasoaren arteko lotura historikoa ezagutzeko aukera emango digu.

Informazio gehiagorako: <http://www.sagardoarenlurraldea.com/eus/zer-egin/esperientziak/>

Sagardun Partzuergoa

Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen entitate publiko-pribatua da. Gaur egun Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa eta Sagardo Berriaren Eguna (txotx irekiera) kudeatzen ditu eta sagardoaren kultura sustatzen du esperientzia turistikoa ezberdinen bitartez. Aurrerantzean "Sagardoaren Lurraldea" marka kudeatuko du.



Sagardoaren kulturaren sustapen turistikoa 9 urte lanean jardun ondoren, Sagardunen berrantolaketa lan bat egin dugu eta datozen urteetako lana definitu dugu. Hala, une honetatik aurrera Sagardunen misioak turismoan jarriko du bere arreta. Lan hori aurrera eramateko eta sagardoaren kulturaren eskaintza turistikoa bultzatzeko, "Sagardoaren Lurraldea" markaren indarra baliatzea erabaki dugu.

Sagardun Partzuergoaren osaketa:

Administrazioa

Astigarragako Udala

Talde kulturalak

- Astigar E.O.E.
- Goldea Herri Kirol Batzordes
- Gure Izarra
- Mundarro Kirol Elkarte
- Norberto Almandoz Musika Eskola
- Xagu Xar
- Zipotza Kultur Elkarte

Sagardotegiak

- Alorrenea
- Astarbe
- Bereziartua
- Gartziategi
- Gaztañaga
- Gurutzeta
- Lizeaga
- Mina
- Petritegi
- Rezola
- Saizar
- Sarasola
- Txopinondo
- Zapiain
- Zelaia

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 331 311

info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com
www.facebook.com/SagardoarenLurraldea
twitter: @sagarlur_es | @sagarlur_eu

SAGARDOAREN
LURRALDEA

txotx.info

 Sagardoetxea

Sagardobenda

 SagardoPedia

SAGARDUN
SAGARDOAREN BIZITZA ASTIGARRAGA

EUSKADI

TURISMO
GIPUZKOA
HAIN TXIKI, HAIN HANDI
TAN POCURTA, TAN GRANDE